

14. AKTA

2001eko azaroaren 26an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta Trintxerpeko Alkateordetzan, bi mila eta bateko azaroaren hogeita seian, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate Lehendakariaren presidentzian eta Joseba Belaustegi Cuesta Udal Idazkari jauna bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Xabier Portugal Arteaga j.
Obdu Lorenzo de Dios a.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

Arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ez du adierazi ezin etorria Anjel Ouviaña Vidal jaunak.

Lehendakaritzak ikusirik Gobernu Batzordea legez eratzeko behar hainbat partaide etorri dela, 18:00etan irekitzat eman du batzarraldia eta ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertu dira.

1.- 12/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 12/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HOGEITA ZORTZI MILIOI EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA BOST (28.133.505,-) PEZETAKOA.

2.- Presoen senideei laguntzak.

Gai hau mahai gainean geratu da.

3.- “Antxo Iparraldea 01 Area Urbanoa hiritartzea (C-1, Azoka)” obraren 5. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea “Antxo Iparraldea 01 Area Urbanoa hiritartzea (C-1, Azoka)” obraren 5. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran, Igor Urrutia eta Jose M^a Irazusta (Udal Aparejadorea) jaun Zuzendariak luzatua, CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresa kontratistaren alde HAMABOST MILIOI SEIEHUN ETA LAUROGEI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA (15.680.591,-) pezetakoa.

Hau guztia D-1659/00 Disposamenduaren kargura.

4.- “San Joan kaleko 58an behean Gizarte Zerbitzuentzat lokala berrabiltzea” obraren ziurtagiri bakarra.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea “San Joan kaleko 58an behean Gizarte Zerbitzuentzat lokala berrabiltzea” obraren ziurtagiri bakarra, Jose M^a Irazusta Udal Aparejadore eta Obraren Zuzendariak luzatua KOBAY DEKONS, S.L. enpresa kontratistaren alde SEI MILIOI LAUREHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA BERROGEI (6.481.640,-) PEZETAKOA.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-864/01 eta D-865/01 Disposamenduen kargura.

5.- “Rikardo Arrillagan igogailua jarri eta Trintxerpen Itsas Gizonen Institutuaren inguruan Urbanizazio osagarria” obraren 3. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurretik aldeko txostena emanik, erabaki du ontzat ematea “Rikardo Arrillagan igogailua jarri eta Trintxerpen Itsas Gizonen Institutuaren inguruan Urbanizazio osagarria” obraren 3. ziurtagiria, CONSTRUCCIONES ERGA, S.L. enpresa kontratistaren alde HAMAHIRU MILIOI LAUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA ZAZPI (13.487.827,.) PEZETAKOA.

Hau guztia D-1494/00 Disposamenduaren kargura.

6.- Gure Zumardiko 27ko 1. A helbidean obren lizentzia eskatzea.

Ikusirik 01-10-22an ANTONIO MILLAN MIRANDA jaunak egindako lizentzia non eskatzen baitu obra txikiak egitea, hau da, Gure Zumardiko 27ko 1. A-n dagoen etxebizitzan leihoen zureria ordezkatzeko, bi orriko 1090 x 2090 mm-ko ate-leiho bat ezartzea, kolore marroia kanpotik eta zuria barrutik, pertsianaren kaxa inkorporatua eta bi orriko kontra-leiho irristatzailea brontze kolorean eta 1490 x 1235 mm-koa eta sukaldean pertsiana bat aldatzea.

Ikusirik udal-teknikariak emandako aurkako txostena bi orriko kontra-leiho irristatzailea brontze kolorean eta 1490 x 1235 mm-koa jartzeaz.

Kontuan izanik 1999ko uztailaren 12ko Alkatetzaren Dekretua, zeinaren bidez delegatzen baitziren eskuduntzak Gobernu Batzordean, honek

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- ANTONIO MILLAN MIRANDA jaunari ez ematea obra txikiak egiteko lizentzia bi orriko kontra-leiho irristatzailea brontze kolorean eta 1490 x 1235 mm-koa jartzeko Pasaiako Arau Subsidiarioetako 084 artikulua urratzen duelako fatxaden kanpo aldeko tratamendua modifikatzen duelako.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen erkurtsuak seinalatuz.

7.- Euskararen aldeko jarduerak burutzen lan egiten duten entitate eta elkargoei subentzioak.

Gobernu Batzordeak, Euskara Batzordeko Lehendakariak 2001eko azaroaren 16an egindako proposamenaren arabera, erabaki du ondoren aipatzen diren entitate eta elkargoei dagozkien subentzioak EMATEA euskararen alde egindako lanak direla eta:

• NAFARROA OINEZ	150.000,- pta.
• KILOMETROAK	100.000,- pta.
• HERRI URRATS	150.000,- pta.
• ARABA EUSKARAZ	100.000,- pta.
• IBILALDIA	100.000,- pta.
• UEU	60.000,- pta.
• BERTSOLARIEN LAGUNAK ELKARTEA	60.000,- pta.
• EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN FESTA	100.000,- pta.
• BERNAT ETXEPARE LIZEOA (BAIONA)	150.000,- pta.
• EUSKARAREN GIZARTEN ERAKUNDEEN	
• KONTSEILUA	350.000,- pta.
	<hr/>
GUZTIRA	1.320.000,- pta.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1327/01 Baimenduaren kargura.

8.- U.E. AN/11 Viteri 02-03-ZUM 11/13 delakoaren konpentsazio proiektua. Behin-betiko onarpena.

Gai hau mahai gainean geratu da.

- Gaizerrendatik at eta aurrez bertako zinegotziek sartzea aho batez onarturik, hurrengo gaia tratatzeari ekin zaio:

**ETA
EZ**



9.- “Donibane Lezo Bidea kalera sartzeko Area berriro urbanizatzea” obraren 4. ziurtagiria.

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA “Donibane-Lezo Bidea kalera sartzeko Area berriro urbanizatzea” obraren 4. ziurtagiria, Juan Karlos Lapazaran, Igor Urrutia eta Jose Maria Irazusta (Udal Aparejadorea) Obren jaun Zuzendariak luzatua CONSTRUCCIONES OTEGI, S.L. enpresa kontratistaren alde 6.589.030,- pezetakoa.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1227/01 Baimenduaren kargura.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.